

# GEROIA

Pentsioak EPSV de empleo preferente



**Geroa Pentsioak Lehentasunezko  
Enpleguzko BGA Eren**

**Inbertsio Sozial  
Arduratsuko (ISA)**

**Txostena**

**2024**

# Aurkibidea

---

**1 - Sarrera**

03.

**2 - Aipamen bereziak**

05.

**3 - Geroa I. Plana**

06.

**4 - Geroa II. Plana**

21.

**5 - Kudeatzailearen Zorroa**

34.

**6 - Inplikazio-Politika**

47.

# 1. Sarrera

2015eko abenduaz geroztik, Inbertsio Arduraturako 6 Printzipioen (PRI) sinatzailea da GEROA. Printzipio horien helburua inbertitzaile instituzionalei ingurumen-alderdiak, alderdi sozialak eta gobernantzari lotutako alderdiak erabakiak hartzeko prozesuetan eta aktiboak kudeatzeko jardunbideetan txertatzen laguntzea da eta, era horretan, epe luzerako emaitzak hobetzea.

Inbertsio Arduraturako Printzipioen (PRI) nazioarteko jarraibideen arabera, inbertsio sozialki arduratsuari lotutako politikak ezartzen dira aktibo mota bakoitzerako, enpresen funtsezko azterketaren osagarri. Politika horien bidez, aktibo-mota bakoitzerako ingurumen-estandar, gizarte-estandar eta gobernantza korporatiboari lotutako estandar zorrotzen bidez inbertsio-unibertso bat sortzeko konpromisoa hartzen dugu.

Inbertsio Sozialki Arduratsuekiko (ISA) konpromiso horrek aukera ematen digu gure zorroaren kudeaketa aktiboan ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta gobernantza korporatiboari lotutako irizpideak (ISG) aplikatzearen bidez arriskua txikiagotzeko eta gure inbertsioek gizartean eta ingurumenean duten eragina aztertu eta neurtzeko.

GEROAK lan-talde konprometitua du eta etengabeko prestakuntza jasotzen du esparru horretan hainbat hitzaldi, mintegi eta ikastaroren bidez, eta aktiboki eguneratzen ditu nobedade eta edukiak inbertsio prosezuan.



## PRI ekimenaren 6 printzipioak

- 1** Inbertsioen analisietan eta erabakiak hartzeko prozesuetan ISG irizpideak kontutan hartuko ditugu.
- 2** Jabe aktibo izango gara eta gure jabetza-praktika eta politiketan ISG gaiak jorratuko ditugu.
- 3** ISG alderdiei buruzko informazio egokia argitaratzeko eskatuko diegu gure inbertsioaren xede diren enpresei.
- 4** Printzipioen onarpena eta ezarpena sustatuko dugu inbertsioen sektorean.
- 5** Elkarlanean lan egingo dugu Printzipioen aplikazioan eraginkortasun handiagoa lortzeko.
- 6** Urtero, printzipioen aplikazioan lortzen ditugun aurrerapenen berri emango dugu.

Txosten honek Entitatea osatzen duten azpizorro bakoitzeko Inbertsio Sozialki Arduraturako Politika bereziak eta hauei guztiei zuzenean eragiten dien Inplikazio-Politika jarraituz lortutako datuak jasotzen ditu.

**ENTITATEA OSATZEN DUTEN AZPIZORROEN EGITURA:**

**KUDEATZAILEA**

Erakundearen Erreserbak biltzen ditu, balore monetarioetan eta Epe Laburreko Errenta Finkoan inbertituta daudenak.

| GEROA PENTSIOAK LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE GOBERNU ORGANOAK:<br>ADEGI %50, ELA,LAB,CC.OO eta UGT: %50 |     |                        |     |
|--|-----|------------------------|-----|
| <b>AKTIBOA</b>   |     | <b>PASIBOA</b>         |     |
| LIKIDEZIA  | %12 | DERRIGORREZKO ERRESER. | %12 |
| ERRENTA FIJOA  | %47 | BOLONDRESKO ERRESER.   | %88 |
| FUNTSAK  | %28 |                        |     |
| KREDITUAK  | %12 |                        |     |
| HIGIEZINAK   | %1  |                        |     |
| <b>2024. URTEA: 57 MM</b>  |     |                        |     |

**I. PLANA**

Gaur egun kotizatzen ari diren bazkideen (Aktiboak), une honetan kotizatzen ari ez direnena (Etenekoak) eta Bizitza-Errenta jasotzen ari direnena (2015 baino lehen sortutako diru-sarrerak) eskubide ekonomikoak biltzen ditu. Plan garrantzitsuena da eta bere zorroa oso dibertsifikatuta dago.

| GEROA I LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO PLANA |           |                            |           |
|--|-----------|----------------------------|-----------|
| <b>AKTIBOA</b>                         |           | <b>PASIBOA</b>             |           |
| LIKIDEZIA                              | %5        | JARDUNEKO BAZKIDEAK        | %70       |
| ERRENTA FINKOA                         | %52       | ETENEKO BAZKIDEAK          | %28       |
| ERRENTA ALDAKORRA                      | %15       |                            |           |
| FUNTSAK                                | %17       |                            |           |
| I.ZUZENA eta A.K.S.                    | %7        |                            |           |
| <b>ERRENTA FIJOA</b>                   | <b>%2</b> | <b>BIZIARTEKO ERRENTAK</b> | <b>%2</b> |
| <b>2024. URTEA: 2.907 MM</b>           |           |                            |           |

**II. PLANA**

Aldi Baterako Errenta jasotzen ari diren bazkideen eskubide ekonomikoak biltzen ditu. 2015ean sortu zen epe luzeko errenta gisa ordaindutako prestazioetarako. Arrisku txikiko eta hileroko ordainketak dituen aktiboak ditu zorroan.

| GEROA II LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO PLANA |     |                        |      |
|---|-----|------------------------|------|
| <b>AKTIBOA</b>                          |     | <b>PASIBOA</b>         |      |
| LIKIDEZIA                               | %2  | ALDI BATERAKO ERRENTAK | %100 |
| ERRENTA FINKOA                          | %82 |                        |      |
| KREDITUAK                               | %6  |                        |      |
| FUNTSAK                                 | %10 |                        |      |
| <b>2024. URTEA: 168 MM</b>              |     |                        |      |

## 2. Aipamen bereziak

GEROAn urteak daramatzagu inbertsio sozialki arduratsuaren (ISA) konpromisoa hartuz, gure inbertsio-erabakietan ingurumen, gizarte eta gobernu onaren (ISG) irizpideak txertatuz. 2016an gure lehen ISA Politika onartu genuenetik, etengabe egin dugu lan araudi-aldaketetara, aurrerapen teknologikoetara eta eskuragarri dauden datuen kalitatearen hobekuntzetara egokitzeko.

2023an zehar, gure politikak eguneratu genituen iraunkortasunari buruzko Europako eskakizun berriei erantzuteko, gure inbertsioek ingurumena edo eskubide sozialak bezalako gaitan izan dezaketen eraginaren azterketa indartuz. Horrez gain, gure plan eta aktibo guztien ISA politikak politika komun bakar batean bateratzen ditugu, Entitate osoari aplikagarria dena. Urrats honek inbertsioak modu arduratsuan kudeatzeko dugun heldutasuna eta konpromiso irmoa islatzen du, eta horrela gure zorro guztietan iraunkortasun-estandarrak igotzen ditu.





2024an, gure politiketan aldaketa handirik egon ez den arren, hobetzen eta egokitzen jarraitzen dugu, gure datu-hornitzaile espezializatuen eguneratze teknikoak sartuz, gure inbertsioek gure ingurumenarentzako etorkizun jasangarriagoa eta errespetuzkoago batean laguntzen jarraituko dutela ziurtatzeko.

### Zer da Inbertsio Sozialki Arduratsua (ISA)?

Inbertsio horrek **irizpide finantzarioak** (errentagarritasuna eta arriskua - inbertsio tradizionala bezala -) zein irizpide extra-finantzarioak (**ISG irizpideak deiturikoak** - ingurumenekoak, sozialak eta gobernu onekoak-) hartzen ditu kontuan, bai inbertsio-erabakiak hartzeko eta aztertzeko prozesuetan, bai **jabetza aktiboan** (aktibo finantzario jakin batzuei datzekien eskubide politikoak gauzatzea), **errentagarritasun txikiagoa izan gabe**.

|          |  |  |
|----------|--|--|
| <b>I</b> |  | <p><b>Ingurumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabideen erabilera</li> <li>• Emisioak</li> <li>• Hornidura-kateari lotutako aztarna</li> <li>• Produktuari lotutako aztarna</li> <li>• Ingurumen-gobernantza eta prozesuak</li> </ul>                        |
| <b>S</b> |  | <p><b>Sociala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileak</li> <li>• Bezeroak eta produktuak</li> <li>• Hornidura-katea</li> <li>• Komunitatea eta gizartea</li> </ul>  |
| <b>G</b> |  | <p><b>Gobernantza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernantza korporatiboa</li> <li>• Etika korporatiboa eta portaera</li> <li>• Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta jasangarritasuna</li> <li>• Elkarreak, kideak</li> <li>• Sariak eta ziurtagiriak</li> </ul> |

### Zergatik ditugu ISA Poliitiak? Horrela...

-  Ingurumen-, gizarte- eta gobernu korporatibo onaren (ISG) irizpideak kontuan hartuz, gure zorroaren kudeaketa aktiboan arriskuak arintzen ditugu.
-  Gure inbertsioek gizartean eta ingurumenean duten eragina aztertu eta neurtzen dugu.
  - Ondorio positiboak
  - Ondorio negatiboak
-  Gure bazkideen interesak defendatzen ditugu, Akziodunen Batzar Nagusietan (ABN) parte hartuz.
-  Enpresek, balio kate osoan zehar, ISG alderdiak, gardentasuna eta jardunbide egokiak hobetzera bultzatzen ditugu, betiere inplikaturako alderdi guztiak kontuan hartuta. Honek gizarte osoari mesede egiten dio.

### 3. Geroa I. plana

Entitatearen Plan garrantzitsuena da kudeatutako aktiboek dagokienez, eta oso zorro dibertsifikatua du.


Plan honek honako hauen eskubide ekonomiak jasotzen ditu:

- Bazkide Aktiboak: Gaur egun kotizatzen ari diren kideak.
- Eteneko Bazkideak: gaur egun GEROAra ekarpenik egiten ez duten arren, noizbait GEROAra ekarpenen bat egin duten bazkideak dira. (Oraindik ez dute prestaziorik jaso.)
- Biziarteko errentak kobratzen ari diren kideak (2015 baino lehen sortutakoak).

| GEROA I<br>LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO PLANA |     |                     |     |
|---|-----|---------------------|-----|
| <b>AKTIBOA</b>                            |     | <b>PASIBOA</b>      |     |
| LIKIDEZIA                                 | %5  | JARDUNEKO BAZKIDEAK | %70 |
| ERRENTA FINKOA                            | %52 | ETENEKO BAZKIDEAK   | %28 |
| ERRENTA ALDAKORRA                         | %15 |                     |     |
| FUNTSAK                                   | %17 |                     |     |
| I.ZUZENA eta A.K.S.                       | %7  |                     |     |
| ERRENTA FIJOA                             | %2  | BIZIARTEKO ERRENTAK | %2  |

2024. URTEA: 2.907 MM

Inbertsio Sozialki Arduratsuaren inguruan egiten dugun jarduera honela egituratuta dago:



## 1. Aktiboen hautaketa

Aktiboen aukeraketaren bidez inbertsio unibertsoa sortzen dugu. Aktiboak, finantza irizpideen arabera hautatzeaz gain, ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta gobernantza korporatiboari lotutako irizpideak (ISG) kontutan izaten ditugu.

Inbertsioaren helburua, errentagarritasuna lortzeaz gain, balioa sortzea da, beti ere, Erakundearen ISA Politika eta Inbertsioen Printzipioen Adierazpenak jarraituz.

Gure inbertsioetarako ISG kalifikazioen bidez enpresak hautatzeko orduan “Best in class” metodoa erabiltzen dugu. Horrez gain, salbuespen-iragazki desberdinak ezarri ditugu aktibo mota bakoitzerako, taulan azaltzen den moduan.

| 1.1 AKTIBO MOTA BAKOITZEKO IRAGAZKIAK                             |  |  |
|---|--|--|
| Zor publikoa eta erakunde publikoena                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  |  |
| Zor korporatiboa / Akzioak enpresa kotizatuetan                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> <li>• Jardueragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera nagusia ikatz termikoa</li> <li>- Arma polemikoak</li> </ul> </li> <li>• Portaeragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Munduko itunaren 10 printzipioak</li> <li>- Eztabaida larriak</li> </ul> </li> </ul> |  |
| Funts likidoak / ETF  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  | Behar bezalako ardura kudeaketa-erakundeak hautatzean: <ul style="list-style-type: none"> <li>-ISA politikak</li> <li>-PRlen sinatzaileak</li> <li>-Akziodun aktiboak(Akziodunen Batzar Orokorra, Elkarrizketa Aktiboa)</li> <li>-Arrisku klimatikoak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Karbono aztarna</li> <li>-GJH</li> <li>-SFDR: 6, 8 o 9 artikulak</li> </ul> </li> </ul> |
| Aktibo alternatiboak (higiezinak, azpiegiturak, arrisku-kapitala) | -  |  |
| Likidezia   | - ISA Politikak dituzten Erakundeak  |  |
| Zorro osoa  | -  |  |

## 2. Zorroaren kudeaketa eta, jarraipena (Hiru hilean behin)

Hiruhilero, zorroaren kontrol-analisia egiten dugu, ezarritako politikak betetzen direla egiaztatzeko eta haietatik desbideratze posiblek eman den hautemateko asmoz.

Ingurumen arriskuek, arrisku sozialek eta gobernu korporatibo onari lotutako arriskuek (ISG) gure inbertsioetan nola eragiten duten neurtzen dugu (Jasangarritasun-arriskuak). Horrez gain, gure inbertsioek ingurumenean eta gizartean nola eragiten duten ere neurtzen dugu: positiboki GJHak, bai negatiboki Kontrako Gorabehera Nagusiak (KGN) aztertuz.



**Jasangarritasun-arriskuak**<sup>1</sup> gutxitzeko helburuarekin, honako arazoak dituzten konpainien azterketa egiten dugu:

- Ingurumen-, gizarte- edo gobernu-alorretako eztabaida larriren batean sartuta daudenak.
- Nazio Batuen Mundu Itunaren 10 printzipioetakoren bat urratu eta inolako neurri zuzentzailerik hartu ez dituztenak.
- Berain ISG arriskuaren kalifikazioa totala 33tik beherako puntuaziora jaitsi zaizkienak.

<sup>1</sup> **Jasangarritasun-arriskuak:** gertatuz gero, inbertsioaren balioan eragin material negatibo erreala edo posiblea izan dezakeen ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-arloko edozein gertaera edo egoera.

Urtean zehar, gorabehera hauek antzeman ditugu:

| IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUA                                | GORABEHERA KOPURUA | GEROAK HAURTUTAKO NEURRIAK   | KONPAINIEN EGOERA   |
|--|--------------------|--|---|
| Gatazka larria dutenak                                   | 3                  | <p>- Gizarte-erantzukizuna, produktuen kalitatea eta segurtasuna eta hondakinen kudeaketa bezalako istilu larriak izan dituen enpresa batekin harremanetan jarri da. Gertakariaren balorazioa hobetu egin da eta zorroan jarraitzen du.</p> <p>- Beste enpresa bat, nazioarteko zigor-arazoekin lotutako gorabehera batekin, zaintzapean jarri zuten; Ondoren, kalifikazioan hobekuntza ikusi da.</p> <p>- 2025eko lehen hiruhilekoan zehar hirugarren enpresa batekin harremanetan jartzea aurreikusiko da, kontabilitate eta fiskal egoera larri bat argitzeko; Bien bitartean, zaintzapean jarraitzen du eta posizioak ez dira handituko.</p> | - Bi enpresen egoera hobetu egin da eta zorroan jarraitzen dute; batek zaintzapean jarraitzen du.   |
| Munduko Itunaren 10 printzipiotakoren bat urratu dutenak | 9                  | <p>- Enpresa batekin harremanetan jarri zen azalpenak eta neurri zuzentzaileak eskatzeko.</p> <p>- 2025eko lehen hiruhilekoan beste enpresa batekin harremanetan jartzea aurreikusten da.</p>  | <p>- Urte hasieran 6 enpresa zaintzapean zeuden 10 printzipioetako bat ez betetzeagatik.</p> <p>- Urtean zehar beste 3 enpresa batu ziren.</p> <p>- 2024/12/31n, 8 konpainiak arazoak konpondu eta balorazioak hobetu dituzte, horregatik zorroan jarraitzen dute, eta batek zaintzapean jarraitzen du.</p> |
| Desbideratzea: ISG arriskuen kalifikazio globala <33     | 0                  | -  | -   |

ISA politikan adierazten den bezala, eztabaida larria duten konpainiek, gehienez, zorro osoaren eskudiruaren %4ra hel daiteke. 2024aren amaieran, ehuneko, %1 baino txikiagoa da.

Era berean, ingurumenean edo gizartean egiten ditugun inbertsioek eragiten dituzten **Kontrako Gorabehera Nagusi**<sup>2</sup> hauek identifikatu eta arintzen saiatzen gara.

Lehenik eta behin, Zor Publikoan egindako inbertsioak sortutako ondorioak aztertuko ditugu:

|                    | GERTAERA KALTEGARRI NAGUSIEN ADIERAZLEAK                   | UNITATEAK  | 2023 12/31 | 2024 03/31 | 2024 06/30 | 2024 09/30 | 2024 12/31 | HARTUTAKO NEURRIAK                                  |
|--------------------|--|--|------------|------------|------------|------------|------------|---|
| <b>INGURUGIROA</b> | Inbertitzen den herrialdeen BEG intentsitatea              | CO <sub>2</sub> e tona/ BPG Milioi Euroko  | 185,14     | 351,98     | 30,92      | 12,76      | 18,48      | Karbono intentsitatea neurtzea.                     |
| <b>SOZIALA</b>     | Gizarte-gaien urraketan menpe dauden inbertsio-herrialdeak | Gizarte-urraketa jasan duten herrialdeen kopurua (Nazioarteko itun eta hitzarmenetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, legedi nazionaletan aipatzen den moduan.) | 0          | 0          | 0          | 0          | 0          | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea. |

<sup>2</sup> **Kontrako Gertaera Nagusiak (KGN):** ingurumen-, gizarte- eta lan-gaiei, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko iraunkortasun-faktoreei buruzko erabakietan izaten diren eragin negatibo garrantzitsuenak dira.

Bigarrenik, Erakunde Korporatiboetako inbertsioek eragintakoak aztertuko ditugu (bonuak eta akzioak):

|             | GERTAERA<br>KALTEGARRI<br>NAGUSIEN<br>ADIERAZLEAK   | UNITATEAK  | 2023<br>12/31 | 2024<br>03/31 | 2024<br>06/30 | 2024<br>09/30 | 2024<br>12/31 | HARTUTAKO<br>NEURRIAK  |
|-------------|---|--|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|--|
| INGURUGIROA | BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3. esparruko emisioak)   | CO <sub>2</sub> e tona   | 843.175,4     | 979.500,2     | 881.962,56    | 882.545,5     | 1.038.221,7   | Karbono intentsitatea neurtzea.  |
|             | Karbono Aztarna   | CO <sub>2</sub> e tona/<br>Inbertitutako<br>Milioi Euroko  | 545,74        | 640,97        | 510,42        | 457,30        | 534,04        | Jarduera nagusi gisa (diru-sarreraren %50 baino gehiago) ikatzaren erauzketa edo ikatz-energiaren sorkuntza duten eta karbono gutxiko ekonomia baterako energia-trantsizioko estrategiarik ez duten enpresak baztertzea.                                     |
|             | BEGen intentsitatea   | T CO <sub>2</sub> e tona/<br>Irabazitako Milioi Euroko   | 601,97        | 746,93        | 658,30        | 1.337,71      | 1.758,89      |  |
| SOZIALA     | Genero aniztasuna kontseiluetan   | Enpresa partaidetuetan emakumezko/gizonezko kontseilarien batez besteko ratioa                               | %37,76        | %37,55        | %34,28        | %36,67        | %36,89        | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Emakumeen ahalduzaren zazpi printzipioen konpromisoa.<br>2024an zehar, 16 enpresarekin harremanetan jarri gara administrazio kontseiluan emakumeen parte-hartzea gutxienez %30era igotzeko eskatzeko. |
|             | Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munitzioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) | Arma polemikoak fabrikatzen edo saltzen parte hartzen duten partaidetutako enpresen inbertsioen ehunekoa (%) | %0            | %0            | %0            | %0            | %0            | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Arma polemikoen produkzioan eta salmentan diharduten enpresak baztertzea.   |

Azkenik, Funts eta Arrisku Kapitaleko Sozietateetan egiten ditugun inbertsioei dagokienez, hauek Kudeatzen dituzten Erakundeek jarraitzen dituzten ISA Politiken jarraipena egiten dugu.


Ekitaldian zehar, "Kudeatzaile atzeratu" gisa sailkatu genituen 12 Kudeatzaileekin harremanetan jarri gara ISA arloan izan duten aurrerapena ezagutzeko asmoz. Inkesta berriaren emaitza hauxe izan da: horietako 2 jarraitzaile bihurtu ziren, 1 aitzindari kategoriara pasa da eta 9 atzeratuta kategorian mantendu dira.

Horrez gain, 13 startup-kin ere jarri gara harremanetan haien aurrerapena ezagutzeko, hiru urtean behin egiten dugun moduan.

Horrela, 2024/12/31n:

| FUNTSAK ETA AKTIBO ALTERNATIBOAK            | %      |                       |
|---|--------|-----------------------|
| ISA Politikak dituzte inbertsio Prozesuetan | %97,60 |                       |
| PRI sinatzaileak                            | %93,55 |                       |
| Kudeaketa-Erakundeari ezarritako Puntuazioa |        |                       |
| 0   | <50    | ATZERATUAK %3,45      |
| >=50  | <70    | JARRAITZAILEAK %13,22 |
| >=70  | >=100  | AINTZINDARIAK %82,58  |
| Start up / Kotizazio gabeak                 |        | %0,74                 |
| Guztira                                     |        | %100,00               |

GEROAK inbertsio funts ezberdinetan inbertitzen du. Funts hauek jasangarritasunarekin duten konpromisoa, Finantza Dibulgazio Iraunkorreko Araudiaren (SFDR) arabera, aztertzen badugu, hau nabarmendu dezakegu:



Inbertsioaren %71 ingurumen edo gizarte ezaugarriak sustatzen dituzten funtsen bidez egiten da (8. artikulua).

%5 ingurumenean edo gizartean eragin positiboa sortzeko konpromiso argia duten funtsetan (9. artikulua) inbertituta dago.

%20 6. Artikulu gisa definitutako funtsetan dago. Iraunkortasun helburu zehatzik gabeko funtsak dira. Aipatu beharra dago atal honetan ESG arriskuak kudeatzen dituzten, baina iraunkortasuna aktiboki sustatzen ez duten funtsak ere sartzen direla.

Ondoren, ezarritako helburuen hiruhilekoko bilakaera jarraian azaltzen da:

| ADIERAZLE NAGUSIAK   |  |                                       |
|--|--|---------------------------------------|
| <b>2.1 Zorroaren Ratinga</b><br>(Hiru Hilekoa: OT :2023/12/31 1T: 2024/03/31 2T: 2024/06/30 3T: 2024/09/30 4T: 2024/12/31) |  | <p>ISG Arrisku Ratinga 2024/12/31</p> |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=50   |  |                                       |
| <b>Zor publikoa eta Erakunde Publikoena</b>  |  |                                       |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %87,67   |  |                                       |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60   |  |                                       |
| <b>Zor korporatiboa eta Akzioak enpresa kotizatuetan</b>   |  |                                       |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %92,15   |  |                                       |
| <b>Funts likidoak/ETF</b>  | Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br> |                                       |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %81,70   |  |                                       |
| <b>Kudeaketa-erakundeak.</b><br>Helburua:<br>Inbertitutakoaren >=75 ISA politikak dituzten kudeatzaileen bitartez          |  |                                       |
| Inbertitutakoaren >=75 PRIak sinatu dituzten kudeatzaileen bitartez  |  |                                       |
| %100 ISA Politikak dituzten Erakundeetan<br>Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60                               |  |                                       |
| <b>Likidezia</b>   |  |                                       |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %97,01   |  |                                       |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60   |  |                                       |
| <b>ZORRO OSOA</b>  |  |                                       |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %92,15   |  |                                       |

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**2.2 Zorroaren inpaktuaren monitorizazioa eta neurketa (2023/12/31)**

(Honako hauek ez dira barnean hartzen: Start-upak eta kotizatu gabeko enpresak, arrisku-kapitaleko sozietateak - AKS/arrisku-kapitaleko funtsak - AKF (likidezi gabeak), titulizazioak, deribatua)

**Karbono aztarna eta Parisko Akordioarekin lerrokatzea**

Parisko Hitzarmena klima-aldaketaren aurkako borrokarako akordio historikoa da, emisio gutxiko, klimarekiko erresilientea eta garapen iraunkorra sustatzeko funtsezkoa dena

Iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren esparruan, GEROAk gure inbertsioekin lotutako Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketen aldizkako ebaluazioa egiten du. Igorpen hauek honako hauek dira:

**1. IRISMENA**

**Isurpen zuzenak**

Iturri propioek edo kontrolautatoek ekoiztuak

- Enpresa instalazioetako isurpen zuzenak
- Ibilgailuen flota

**2. IRISMENA**

**Zeharkako isurpenak**

Entitateak eskuratu eta kontsumitutako elektrizitatearen sorkuntzatik sortutako isuriak

- Elektrizitatea

**3. IRISMENA**

**Zeharkako isurpenak**

Erakundearen jardueren ondorio dira, baina bere jabetzakoak edo kontrolatuak ez diren iturrietan gertatzen dira

- Lehengailen erabilera
- Untzi garraioa
- Lur garraioa
- Hondakinen kudeaketa
- Negozio bidaiak
- In itinere bidaiak
- Ur kontsumoa
- Kapital aktiboa eta inbertsioak

| ADIERAZLEA                           | METRIKA   | 2023/12/31   | 2024/03/31   | 2024/06/30   | 2024/09/30   | 2024/12/31   |
|--------------------------------------|---|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3.) | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 1.016.389,10 | 1.176.521,90 | 1.087.991,60 | 1.075.802,00 | 1.223.779,60 |
| 1. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 107.938,03   | 111.863,59   | 187.582,88   | 115.523,90   | 127.009,41   |
| 2. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 17.194,66    | 16.854,52    | 44.101,64    | 16.905,35    | 16.653,06    |
| 3. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 895.988,80   | 1.052.667,20 | 966.437,80   | 948.274,50   | 1.123.721,90 |
| Karbono Aztarna                      | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Inbertitutako Milioi | 531,74       | 620,31       | 512,24       | 462,27       | 513,39       |
| BEGen intentsitatea                  | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Irabazitako Milioi   | 665,91       | 804,25       | 748,44       | 1.374,92     | 1.618,69     |
| Herrialdeen BEGen intentsitatea      | CO <sub>2</sub> e Tona / BPG<br>Milloi Euorko   | 255,70       | 424,62       | 32,20        | 17,75        | 18,48        |

2024an zehar, zorroaren BEG isuriak 1.176.521,90 izatetik 1.223.779,60 tona CO<sub>2</sub>e izatera pasa ziren, batez ere 3. esparruko emisioen igoerak bultzatuta, GEROA I Planaren guztizkoaren %90 suposatzen dutenak. Hala ere, 1. eta 2. esparruko isurketetan arreta jartzen badugu, hau da, enpresen zuzeneko kontrolpean daudenak, mailak nahiko egonkor mantendu dira urtean zehar, beren eragiketetan eta energia-kontsumoan errendimendu hobea islatuz. Kontuan izan behar da inbertsio berriak sartzeak emisio absolutuen igoeran ere laguntzen duela, sartutako enpresa berri bakoitzak bere karbono aztarna gehitzen duelako.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Bere aldetik, inbertitutako milioi euro bakoitzeko karbono aztarnak hobekuntza apur bat lortu zuen 2023ko zenbatekoekin alderatuz, 531,74tik 513,39ra murriztuz, eta horrek zorroaren klima-eraginkortasunean aurrerapena adierazten du, baita bolumen handiagoa kudeatutako eta eskuragarri dauden datuen hedapeneko testuinguruan ere.

**1. eta 2. esparruko emisioei arreta jarriz, Planaren tenperatura kalkulatu dugu.**

Horretarako, enpresen emisio murrizketak tenperatura-eszenatoki desberdinetarako berotze globala mugatzeko beharrezkoa den deskarbonizazio-mailarekin alderatzen dira. Horrela, gure zorroaren tenperatura 1,9°C-koa dela ikusten dugu.

Gogoratu beharra dago Parisko Akordioak industria aurreko mailen aldean tenperatura globalaren batez besteko igoera 2 gradura mugatu nahi duela, mende honen amaieran 1,5 graduko marka ez gainditzeko ahaleginak bikoiztu eta 2050ean klima neutraltasuna lortzeko.


Karbono-aztarna egungo emisioak neurtzeko adierazle garrantzitsuenetako bat bada ere, inbertitzen ditugun enpresen azterketa zehatzagoa egiteak gai honi buruzko ikuspegi prospektiboa izateko aukera ematen du. Horrela, enpresen konpromiso-maila aztertzen dugu alderdi hauetan:



**Karbono-emisioen puntuazioa**

Karteraren kalitatea eta ingurumen-errendimendua ebaluatzen dituen adierazle bat da (0tik 100era bitarteko eskala, non 100 den balorazio onena).

CO2 isurien puntuazioek enpresaren errendimendua neurtzen dute, enpresa bakoitzaren 1. eta 2. esparruko emisio beren kideekin alderatuz. Puntuazio hauek zorroaren mailan batzen dira puntuazio bakarra lortuz.



**Enpresek isuriak murrizteko konpromisoa**

|   |                        |        |
|---|------------------------|--------|
| Emisioak murrizteko politikak dituzten erakundeak |                        | %72,62 |
| Emisioak murrizteko helburuak dituzten erakundeak |                        | %69,48 |
| Emisio helburuak dituzten erakundeak              | Plana garatuta         | %57,18 |
|   | Plan garatze prozesuan | %9,07  |


**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**Zero emisio garbiaren ekimena.**

Ekimena BEG emisioak murriztean datza, 2050. urterako zero emisioetatik ahalik eta gertuen egon arte.

Inbertsioak honekin bateratzen diren konpromezuen Heldutasun Mailaren bidez kontrolatzen dugu, honako neurri desberdinak kontuan hartuta, hala nola:

- Epe luzerako anbizioa
- Epe laburreko helburuak
- Tenperatura lerrokatzea
- Emisioen errendimendua helburuekiko
- Emisio materialen berri ematea
- Deskarbonizazio estrategia



Horrela, Net Zero grafikoan Plana osatzen duten enpresek Zero Emisio Garbiaren Helburuarekin duten lerrokatze estrategia agertzen da: Kontuan izan behar da erakundeen %22,99k bat egiten dutela helburuarekin, %12,94k gutxi gorabehera lerrokatzen ari direla eta %44,73k konpromisoa hartu duela.

**Inpaktu-inbertsioak ingurumenean eta jasangarritasunean**

Inpaktu-inbertsioak, errentagarritasun finantzarioarekin batera, gizartean eta ingurumenean eragin positiboa eta neurgarria sortzea bilatzen duten enpresetan inbertitzean datza.

GEROAK 293 milioi euro inguru inbertitzen ditu bonu berde eta bonu jasangarrietan. Enpresek edo herrialdeek jaulkitako bonuak dira, eta ingurumen-proiektuak edo Klima Aldaketarekin lotutako proiektuak finantzatzeko erabiltzen dira.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**Gure inbertsioak Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatzea**

GEROAn, gure inbertsio guztiek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen nola laguntzen duten kontrolatzen dugu, gure finantza-erabakiak garapen jasangarri eta bidezkoarekin bat egiten dutela ziurtatuz.

Enpresek eragina bi modutan eragin dezaketela uste da:


- *Produktuak eta zerbitzuak:* inbertitzen ditugun enpresek produktu eta zerbitzuen bidez zenbaterainoko eragin positiboa duten ebaluatzen dugu.
- *Operatiba:* Enpresa horien barne kudeaketa aztertzen dugu, haien jardunbide operatiboak iraunkorrak eta arduratsuak direla ziurtatzeko.

Horrez gain, enpresek Kalte Esanguratsurik ez eragiteko (DNSH) irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen da, hau da, lerrokatu gisa sailkatutako inbertsioek ez duela eragin negatiborik izango GJH-en aurrerapenean bermatzen.

Irizpide hauen arabera, inbertsio bakoitza kategoria hauetako batean sailkatzen da:

- *Lerrokatuta:* positiboki laguntzen die GJHei.
- *Neutroa:* ez du eragin esanguratsurik, ez positiboa ez negatiboa.
- *Lerrokatu gabeak:* garapen iraunkorrean eragin negatiboa izateko arriskua izan dezake.


Ondoko grafikoan enpresek sailkatzeko prozesua erakusten da, GJHekin bat datozenen arabera:



**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Gure inbertsioek GJHetan duten eragina ebaluatzeko, funtsezko hiru dimentsio hartzen dira kontuan:

- *Operatibaren lerrokatzea*: inbertitzen ditugun enpresek beren eragiketetan jasangarritasun-arauak nola betetzen dituzten ebaluatzen dugu.
- *Produktu eta zerbitzuen ebaluazioa*: aztertzen dugu enpresek beren produktu eta zerbitzuen bidez positiboki laguntzen dioten GJHei.
- *Diru-sarreraren lerrokatzea*: enpresen diru-sarrerak jarduera jasangarrietatik zenbateraino datozen aztertzen dugu.



Azterketa horretatik gaur egun inbertitzen dugun enpresen gehiengo zabalak ez duela GJHen ekarpenean eragin nabarmenik, ez positibo, ez negatiborik, ondorioztatzen da.

Gure inbertsioen %30 GJHein bat egiten dutela azpimarratzen dugu, hau da, jasangarritasunean eragin positiboa sortzen dutela. Ikusten denez, %20k praktika arduratsuak hartu ditu barne kudeaketan, hala nola isurketak murriztea, baliabideen erabilera eraginkorra, aniztasuna sustatzea eta hornikuntza-kateak hobetzea besteak beste.


Produktuen eta zerbitzuen ebaluazioa eta diru-sarreraren lerrokatzeak agerian uzten du zorroko enpresek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen %21 GJHein bat egiten dutela, diru-sarreraren lerrokatzearen %9aren aldean. Honek, zorroko zenbait enpresek eragin jasangarria duten produktuak eta zerbitzuak garatzen dituzten arren, horiek ez dutela zertan diru-sarreraren gehiengoa ordezkatzeko iradokitzen du. Era berean, baliteke negozio-eredu iraunkorretarako trantsizioa prozesuan dagoela eta oraindik ez duela diru-sarreraren zati nagusi bat enpresa askotan adierazten.

Azkenik, aipatu behar da enpresen %10ak ez duela Garapen Jasangarriko Helburuekin bat egiten.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**



Ondorengo grafikoan ekarpen positiboa (urdina) eta negatiboa (laranja) guztizkoa erakusten da GJHetako helburu bakoitzarentzat:



Grafiko honetatik honako hauek nabarmendu ditzakegu:

**Ingurumenaren gaineko eragina:** zorroak klima-ekintzarekin (13. SDG) eta energia garbiarekin (7. SDG) konpromiso sendoa erakusten du, klima-aldaketa arintzeko eta trantsizio energetikorako inbertsioak islatuz. Hala ere, bi kategoriek okerrak dituzte, eta inbertsio batzuk oraindik karbono azterna handia duten sektoreekin lotuta daudela adierazten du. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua (12. SDG) eta hiri jasagarriek (11. SDG) ere inbertsioak jasotzen dituzte, ekonomia zirkularra eta azpiegitura jasagarriak sustatuz.

**Gizartean eragina:** Gizartearen ikuspegitik, zorroak genero-ekitatean arreta handia du (5. SDG), inklusioaren eta aniztasunaren aldeko apustu nabarmena islatuz. Osasunean eta ongizatean (3. SDG) eta lan duinetan (8. SDG) ere nabarmentzen da, osasun-zerbitzuetarako sarbidean eta enplegu-sorkuntzan hobekuntzak bultzatuz.

## ADIERAZLE NAGUSIAK

### Emakumeen Jabekuntzarako Zazpi Printzipioekiko konpromisoa

2019an, “NBE Emakumeak erakundearen ahalduntze-printzipioak babesteko eta genero-berdintasuna lortzeko inbertitzaileen adierazpena” lankidetzakimenean parte hartu genuen.

Harrezkero, inbertitzen dugun enpresetan emakumeek duten egoera monitorizazio dugu, eta interes berezia jartzen dugu administrazio-kontseiluaren osaeran.

2024an zehar, administrazio kontseiluetan emakumeen ordezkartzaren jarraipen aktiboa mantendu dugu.

- 34 enpresa zaintzapean egon dira emakumezko zuzendarien gutxieneko atalasea ez iristeagatik.
- 19 enpresak kontseiluan emakumezkoen proportzioa hobetu dute, 15ek esperotako portzentajea gainditzea eta jarraipen-zerrendatik ateratzea lortu dute. 4 enpresak, berriz, emakume zuzendari berriak sartu dituzten arren, oraindik ez dute nahi den maila betetzen eta jarraipenpean jarraitzen dute.
- 2 konpainiak zerrendatik alde egin dugu haiengandik kendu dugulako.
- Enpresa batek ratioa okerrera egin du.
- Zerrendari balio berri bat gehitu zaio.

Urteko azken hiruhilekoan, 16 enpresarekin harremanetan jarri ginen euren administrazio kontseiluetan emakumeen presentzia areagotzera bultzatzeko eta genero aniztasun politikei eta arlo horretan dituzten plan estrategikoei buruzko informazioa eskatzeko.

Genero berdintasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, inbertitzen ditugun enpresetan aldaketak bultzatuz, haien gobernu-organoetan aniztasun handiagoa sustatzeko. Urte amaieran, 2024ko abenduaren 31n, 17 enpresaren jarraipena egiten jarraitzen dugu.

### Emakumearen ahalduntzerako 7 printzipioak

- 1.: Genero-berdintasunerako goi-mailako lidergo korporatibo bat ezartzea.
- 2.: Emakume eta gizon guztiak lanean zuzen tratatzea: giza eskubideak eta diskriminaziorik eza errespetatzea eta babetea.
- 3.: Langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzea.
- 4.: Emakumeen hezkuntza, prestakuntza eta lanbide-garapena sustatzea.
- 5.: Emakumeak ahaldunduko dituzten merkaturatze-jardunbideak, enpresa-garapena eta hornidura-katea inplementatzea.
- 6.: Ekimen komunitarioen eta sustapen-ekimenen bidez berdintasuna sustatzea.
- 7.: Genero-berdintasuna lortzeko egindako aurrerapena neurtzea eta jendaurrean jakinaraztea.

## 4. Geroa II plana


Plan hau 2015ean sortu zen eta epe luzerako Aldi Baterako Errenta jasotzen ari diren bazkideen eskubide ekonomikoak jasotzen ditu.

Zorria, batez ere, arrisku baxuko errenta finkoko aktiboek osatzen dute, hileroko diru-fluxua sortzen dutenak.

| GEROA II<br>LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO PLANA |      |
|--|------|
| <b>AKTIBOA</b>                             |      |
| LIKIDEZIA                                  | %2   |
| ERRENTA FINKOA                             | %82  |
| KREDITUAK                                  | %6   |
| FUNTSAK                                    | %10  |
| <b>PASIBOA</b>                             |      |
| ALDI BATERAKO ERRENTAK                     | %100 |

2024. URTEA: 168 MM

Inbertsio Sozialki Arduratsuaren inguruan egiten dugun jarduera honela egituratuta dago:



## 1. Aktiboen hautaketa

Aktiboen aukeraketaren bidez inbertsio unibertsoa sortzen dugu. Aktiboak, finantza irizpideen arabera hautatzeaz gain, ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta gobernantza korporatiboari lotutako irizpideak (ISG) kontutan izaten ditugu.

Inbertsioaren helburua, errentagarritasuna lortzeaz gain, balioa sortzea da, beti ere, Erakundearen ISA Politika eta Inbertsioen Printzipioen Adierazpenak jarraituz.

Gure inbertsioetarako ISG kalifikazioen bidez enpresak hautatzeko orduan “Best in class” metodoa erabiltzen dugu. Horrez gain, salbuespen-iragazki desberdinak ezarri ditugu aktibo mota bakoitzerako, taulan azaltzen den moduan.

| 1.1 AKTIBO MOTA BAKOITZEKO IRAGAZKIAK                             |  |  |
|---|--|--|
| Zor publikoa eta erakunde publikoena                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  |  |
| Zor korporatiboa / Akzioak enpresa kotizatuetan                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> <li>• Jardueragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera nagusia ikatz termikoa</li> <li>- Arma polemikoak</li> </ul> </li> <li>• Portaeragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Munduko itunaren 10 printzipioak</li> <li>- Eztabaida larriak</li> </ul> </li> </ul> |  |
| Funts likidoak / ETF  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  | Behar bezalako ardura kudeaketa-erakundeak hautatzean: <ul style="list-style-type: none"> <li>-ISA politikak</li> <li>-PRlen sinatzaileak</li> <li>-Akziodun aktiboak(Akziodunen Batzar Orokorra, Elkarrizketa Aktiboa)</li> <li>-Arrisku klimatikoak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Karbono aztarna</li> <li>-GJH</li> <li>-SFDR: 6, 8 o 9 artikulak</li> </ul> </li> </ul> |
| Aktibo alternatiboak (higiezinak, azpiegiturak, arrisku-kapitala) | -  |  |
| Likidezia   | - ISA Politikak dituzten Erakundeak  |  |
| Zorro osoa  | -  |  |

## 2. Zorroaren kudeaketa eta jarraipena (Hiru hilean behin)

Hiruhilero, zorroaren kontrol-analisia egiten dugu, ezarritako politikak betetzen direla egiaztatzeko eta haietatik desbideratze posiblek eman den hautemateko asmoz.

Ingurumen arriskuek, arrisku sozialek eta gobernu korporatibo onari lotutako arriskuek (ISG) gure inbertsioetan nola eragiten duten neurtzen dugu (Jasangarritasun-arriskuak). Horrez gain, gure inbertsioek ingurumenean eta gizartean nola eragiten duten ere neurtzen dugu: positiboki GJHak, bai negatiboki Kontrako Gorabehera Nagusiak (KGN) aztertuz.



**Jasangarritasun-arriskuak**<sup>3</sup> gutxitzeko helburuarekin, honako arazoak dituzten konpainien azterketa egiten dugu:

- Ingurumen-, gizarte- edo gobernu-alorretako eztabaida larriren batean sartuta daudenak.
- Nazio Batuen Mundu Itunaren 10 printzipioetakoren bat urratu eta inolako neurri zuzentzailerik hartu ez dituztenak.
- Berain ISG arriskuaren kalifikazioa totala 33tik beherako puntuaziora jaitsi zaizkienak.

<sup>3</sup> **Jasangarritasun-arriskuak:** gertatuz gero, inbertsioaren balioan eragin material negatibo erreala edo posiblea izan dezakeen ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-arloko edozein gertaera edo egoera.

Azpirarratu beharrekoa da, ekitaldian zehar ez dela horrelako gorabeherarik gertatu, eta, beraz, ez dela inolako ekintza zuzentzailerik behar izan.

ISA politikan adierazten den bezala, eztabaida larria duten konpainiek, gehienez, zorro osoaren eskudiruaren %4ra hel daiteke. 2024aren amaieran, ehunekoak, %1 baino txikiagoa da.

Era berean, ingurumenean edo gizartean egiten ditugun inbertsioek eragiten dituzten **Kontrako Gorabehera Nagusi (KGN)**<sup>4</sup> hauek identifikatu eta arintzen saiatzen gara.

Lehenik eta behin, Zor Publikoan egindako inbertsioak sortutako ondorioak aztertuko ditugu:

|                    | GERTAERA KALTEGARRI NAGUSIEN ADIERAZLEAK                   | UNITATEAK   | 2023<br>12/31 | 2024<br>03/31 | 2024<br>06/30 | 2024<br>09/30 | 2024<br>12/31 | HARTUTAKO NEURRIAK                                  |
|--------------------|--|---|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---|
| <b>INGURUGIROA</b> | Inbertitzen den herrialdeen BEG intentsitatea              | CO <sub>2</sub> e tona/ BPG Milioi Euroko   | 202,53        | 367,47        | 255,42        | 263,46        | 361,05        | Karbono intentsitatea neurtzea.                     |
| <b>SOZIALA</b>     | Gizarte-gaien urraketan menpe dauden inbertsio-herrialdeak | Gizarte-urraketa jasan duten herrialdeen kopurua (Nazioarteko itun eta hitzarmenetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, legedi nazionalan aipatzen den moduan) | 0             | 0             | 0             | 0             | 0             | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea. |

<sup>4</sup> **Kontrako Gorabehera Nagusi (KGN)**: ingurumen-, gizarte- eta lan-gaiei, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko iraunkortasun-faktoreei buruzko erabakietan izaten diren eragin negatibo garrantzitsuenak dira.

Bigarrenik, Erakunde Korporatiboetako inbertsioek eragintakoak aztertuko ditugu (bonuak eta akzioak):

| GERTAERA KALTEGARRI NAGUSIEN ADIERAZLEAK |  | UNITATEAK  | 2023 12/31 | 2024 03/31 | 2024 06/30 | 2024 09/30 | 2024 12/31 | HARTUTAKO NEURRIAK  |
|--|--|--|------------|------------|------------|------------|------------|---|
| INGURUGIROA                              | BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3. esparruko emisioak)  | CO <sub>2</sub> e tona   | 4.922,14   | 4.616,64   | 6159.72    | 4.108,75   | 4.036,67   | Karbono intentsitatea neurtzea.   |
|  | Karbono Aztarna  | CO <sub>2</sub> e tona/ Inbertitutako Milioi Euroko  | 176,42     | 164,60     | 46,39      | 33,70      | 33,25      | Jarduera nagusi gisa (diru-sarreraren %50 baino gehiago) ikatzaren erazketa edo ikatz-energiaren sorkuntza duten eta karbono gutxiko ekonomia baterako energia-trantsizioko estrategiarik ez duten enpresak baztertzea.   |
|  | BEGen intentsitatea  | T CO <sub>2</sub> e tona/ Irabazitako Milioi Euroko  | 747,28     | 401,34     | 110,36     | 106,52     | 99,42      |   |
| SOZIALA                                  | Genero aniztasuna kontseiluetan  | Enpresa partaidetuetan emakumezko/ gizonezko kontseilarien batez besteko ratioa                              | %24,71     | %25,30     | %6,16      | %5,74      | %6,52      | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Emakumeen ahalduntzearen zazpi printzipioen konpromisoa.   |
|  | Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munizioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) | Arma polemikoak fabrikatzen edo saltzen parte hartzen duten partaidetutako enpresen inbertsioen ehunekoa (%) | %0         | %0         | %0         | %0         | %0         | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munizioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munizioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munizioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) |

Azkenik, Funts eta Arrisku Kapitaleko Sozietateetan egiten ditugun inbertsioei dagokienez, hauek Kudeatzen dituzten Erakundeek jarraitzen dituzten ISA Politiken jarraipena egiten dugu. Kudeatzaileen %100ek ISA Politikak jarraitzen dituztela ondoriozta dezakegu.

Horrela, 2024/12/31n:

| FUNTS LIKIDOAK                              |       | %              |         |                                    |
|---|-------|----------------|---------|------------------------------------|
| ISA Politikak dituzte inbertsio Prozesuetan |       | %100,00        |         |                                    |
| PRI sinatzaileak                            |       | %100,00        |         |                                    |
| Kudeaketa-Erakundeari ezarritako Puntuazioa |       |                |         |                                    |
| 0   | <50   | ATZERATUAK     | %0,00   | Urteroko jarraipena beharrezkoa da |
| >=50  | <70   | JARRAITZAILEAK | %0,00   |                                    |
| >=70  | >=100 | AINTZINDARIAK  | %100,00 |                                    |
| Total                                       |       | %100,00        |         |                                    |

GEROAK inbertsio funts ezberdinetan inbertitzen du. Funts horiek jasangarritasunarekin duten konpromisoa, Finantza Dibulgazio Iraunkorreko Araudiaren (SFDR) arabera aztertzen badugu, inbertsioaren %100a ingurumen edo gizarte ezaugarriak sustatzen dituzten funtsen bidez egin dela (8. artikulua) ondoriozta daiteke.

Ondoren, ezarritako helburuen hiruhilekoko bilakaera jarraian azaltzen da:

| ADIERAZLE NAGUSIAK   |  |   |
|--|--|---|
| <b>2.1 Zorroaren Ratinga</b><br>(Hiru Hilekoa: OT :2023/12/31 1T: 2024/03/31 2T: 2024/06/30 3T: 2024/09/30 4T: 2024/12/31) |  | <p>ISG Arrisku Ratinga 2024/12/31</p>   |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=50   |  |   |
| Zor publikoa eta Erakunde Publikoenena   | <p>OT 1T 2T 3T 4T</p>  |   |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %100   |  |   |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60   |  |   |
| Zor korporatiboa eta Akzioak enpresa kotizatuetan  | <p>OT 1T 2T 3T 4T</p>  |   |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %35,21   |  |   |
| Funts likidoak/ETF   | Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p>  | Kudeaketa-erakundeak. Helburua:<br>Inbertitutakoaren >=%75 ISA politikak dituzten kudeatzaileen bitartez<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p> |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %84,30   |  |   |
| Aktibo alternatiboak (Higiezinak, Azpiegiturak, arrisku-kapitala...)   | Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p>  | Inbertitutakoaren >=%75 PRIak sinatu dituzten kudeatzaileen bitartez<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p>                                     |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %84,30   |  |   |
| Likidezia  | 100 ISA Politikak dituzten Erakundeetan<br>Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p> |   |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %100   |  |   |
| ZORRO OSOA   | Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br><p>OT 1T 2T 3T 4T</p>  |   |
| Estaldura-maila 2024/12/31: %96,26   |  |   |

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**2.2 Zorroaren inpaktuaren monitorizazioa eta neurketa (2023/12/31)**

(Honako hauek ez dira barnean hartzen: Start-upak eta kotizatu gabeko enpresak, arrisku-kapitaleko sozietateak - AKS/arrisku-kapitaleko funtsak - AKF (likidezi gabeak), titulizazioak, deribatutak)

**Karbono aztarna eta Parisko Akordioarekin lerrokatzea**

Parisko Hitzarmena klima-aldaketaren aurkako borrokarako akordio historikoa da, emisio gutxiko, klimarekiko erresilientea eta garapen iraunkorra sustatzeko funtsezkoa dena

Iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren esparruan, GEROAk gure inbertsioekin lotutako Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketen aldizkako ebaluazioa egiten du. Igorpen hauek honako hauek dira:

• **Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketak**

**1. IRISMENA**

**Isurpen zuzenak**

Iturri propioek edo kontrolautatoek ekoiztuak

- Enpresa instalazioetako isurpen zuzenak
- Ibilgailuen flota

**2. IRISMENA**

**Zeharkako isurpenak**

Entitateak eskuratu eta kontsumitutako elektrizitatearen sorkuntzatik sortutako isuriak

- Elektrizitatea

**3. IRISMENA**

**Zeharkako isurpenak**

Erakundearen jardueren ondorio dira, baina bere jabetzakoak edo kontrolatuak ez diren iturrietan gertatzen dira

- Lehengailen erabilera
- Untzi garraioa
- Lur garraioa
- Hondakinen kudeaketa
- Negozio bidaiak
- In itinere bidaiak
- Ur kontsumoa
- Kapital aktiboa eta inbertsioak

| ADIERAZLEA                           | METRIKA   | 2023/12/31 | 2024/03/31 | 2024/06/30 | 2024/09/30 | 2024/12/31 |
|--------------------------------------|---|------------|------------|------------|------------|------------|
| BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3.) | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 4.922,71   | 4.625,24   | 6.160,26   | 6.335,90   | 9.916,43   |
| 1. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 233,94     | 235,87     | 316,76     | 353,00     | 3.146,92   |
| 2. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 492,77     | 496,96     | 524,87     | 467,14     | 1.080,28   |
| 3. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 4.135,46   | 3.832,47   | 5.318,64   | 5.513,96   | 8.605,51   |
| Karbono Aztarna                      | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Inbertitutako Milioi | 162,98     | 144,76     | 45,60      | 47,59      | 76,67      |
| BEGen intentsitatea                  | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Irabazitako Milioi   | 690,46     | 355,55     | 108,51     | 126,76     | 197,96     |
| Herrialdeen BEGen intentsitatea      | CO <sub>2</sub> e Tona / BPG<br>Milioi Euorko   | 202,53     | 367,47     | 252,14     | 249,51     | 361,05     |

2024an, zorroko BEGen guztizko emisioak 4.922,71 tonatik 9.916,43 tona (e) tonara igo ziren, batez ere inbertsio berriak sartu zirelako. Zorroan posizio berriak sartzen diren heinean, CO<sub>2</sub>-tonek gora egiten dute, gehitutako enpresa berri bakoitzak bere karbono-aztarna ematen baitu.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Termino absolutuetan gorakada hori izan arren, adierazle erlatiboek bilakaera positiboa erakusten dute. Karbono-aztarna inbertitutako milioi euroko 162,98 tonatik 76,67 tonara murriztu zen; BEGen intentsitatea, berriz, milioi euroko diru sarrerako bakoitzeko 690,46 tonatik 197,96 tona CO2-era pasatu zen. Horrek erakusten du zorro eraginkorragoa dela, isuriei dagokienez, tamainari eta sortutako diru-sarrereri dagokienez.

**1. eta 2. esparruko emisioei arreta jarriz, Planaren tenperatura kalkulatzen dugu.**

Horretarako, enpresen emisio murrizketak tenperatura-eszenatoki desberdinetarako berotze globala mugatzeko beharrezkoa den deskarbonizazio-mailarekin alderatzen dira. Horrela, gure zorroaren tenperatura 1,7°C-koa dela ikusten dugu.

Gogoratu beharra dago Parisko Akordioak industria aurreko mailen aldean tenperatura globalaren batez besteko igoera 2 gradura mugatu nahi duela, mende honen amaieran 1,5 graduko marka ez gainditzeko ahaleginak bikoiztu eta 2050ean klima neutraltasuna lortzeko.


Karbono-aztarna egungo emisioak neurtzeko adierazle garrantzitsuenetako bat bada ere, inbertitzen ditugun enpresen azterketa zehatzagoa egiteak gai honi buruzko ikuspegi prospektiboa izateko aukera ematen du. Horrela, enpresen konpromiso-maila aztertzen dugu alderdi hauetan:



**Karbono-emisioen puntuazioa**

Karteraren kalitatea eta ingurumen-errendimendua ebaluatzen dituen adierazle bat da (0tik 100era bitarteko eskala, non 100 den balorazio onena).

CO2 isurien puntuazioek enpresaren errendimendua neurtzen dute, enpresa bakoitzaren 1. eta 2. esparruko emisio beren kideekin alderatuz. Puntuazio hauek zorroaren mailan batzen dira puntuazio bakarra lortuz.



**Enpresek isuriak murrizteko konpromisoa**

|   |                        |        |
|---|------------------------|--------|
| Emisioak murrizteko politikak dituzten erakundeak |                        | %19,38 |
| Emisioak murrizteko helburuak dituzten erakundeak |                        | %19,20 |
| Emisio helburuak dituzten erakundeak              | Plana garatuta         | %22,47 |
|   | Plan garatze prozesuan | %0,84  |


**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**Zero emisio garbiaren ekimena.**

Ekimena BEG emisioak murriztean datza, 2050. urterako zero emisioetatik ahalik eta gertuen egon arte.

Inbertsioak honekin bateratzen diren konpromezuen Heldutasun Mailaren bidez kontrolatzen dugu, honako neurri desberdinak kontuan hartuta, hala nola:

- Epe luzerako anbizioa
- Epe laburreko helburuak
- Tenperatura lerrokatzea
- Emisioen errendimendua helburuekiko
- Emisio materialen berri ematea
- Deskarbonizazio estrategia



Horrela, Net Zero grafikoan Plana osatzen duten enpresek Zero Emisio Garbiaren Helburuarekin duten lerrokatze estrategia agertzen da: Kontuan izan behar da erakundeek %62,30k bat egiten dutela helburuarekin, %10,72k gutxi gorabehera lerrokatzen ari direla eta %22,34ak konpromisoa hartu duela.

**Inpaktu-inbertsioak ingurumenean eta jasangarritasunean**

Inpaktu-inbertsioak, errentagarritasun finantzarioarekin batera, gizartean eta ingurumenean eragin positiboa eta neurgarria sortzea bilatzen duten enpresetan inbertitzean datza.

GEROAK 6 milioi euro inguru inbertitzen ditu bonu berde eta bonu jasangarrietan. Enpresek edo herrialdeek jaulkitako bonuak dira, eta ingurumen-proiektuak edo Klima Aldaketarekin lotutako proiektuak finantzatzeko erabiltzen dira.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**Gure inbertsioak Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatzea**

GEROAn, gure inbertsio guztiek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen nola laguntzen duten kontrolatzen dugu, gure finantza-erabakiak garapen jasangarri eta bidezkoarekin bat egiten dutela ziurtatuz.

Enpresek eragina bi modutan eragin dezaketela uste da:

- *Produktuak eta zerbitzuak:* inbertitzen ditugun enpresek produktu eta zerbitzuen bidez zenbaterainoko eragin positiboa duten ebaluatzen dugu.
- *Operatiba:* Enpresa horien barne kudeaketa aztertzen dugu, haien jardunbide operatiboak iraunkorrak eta arduratsuak direla ziurtatzeko.

Horrez gain, enpresek Kalte Esanguratsurik ez eragiteko (DNSH) irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen da, hau da, lerrokatu gisa sailkatutako inbertsioek ez duela eragin negatiborik izango GJH-en aurrerapenean bermatzen.

Irizpide hauen arabera, inbertsio bakoitza kategoria hauetako batean sailkatzen da:

- *Lerrokatuta:* positiboki laguntzen die GJHei.
- *Neutroa:* ez du eragin esanguratsurik, ez positiboa ez negatiboa.
- *Lerrokatu gabeak:* garapen iraunkorrean eragin negatiboa izateko arriskua izan dezake.


Ondoko grafikoan enpresek sailkatzeko prozesua erakusten da, GJHekin bat datozenen arabera:



**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Gure inbertsioek GJHetan duten eragina ebaluatzeko, funtsezko hiru dimentsio hartzen dira kontuan:

- *Operatibaren lerrokatzea*: inbertitzen ditugun enpresek beren eragiketetan jasangarritasun-arauak nola betetzen dituzten ebaluatzen dugu.
- *Produktu eta zerbitzuen ebaluazioa*: aztertzen dugu enpresek beren produktu eta zerbitzuen bidez positiboki laguntzen dioten GJHei.
- *Diru-sarreraren lerrokatzea*: enpresen diru-sarrerak jarduera jasangarrietatik zenbateraino datozen aztertzen dugu.




Gure inbertsioen %74 inguru ezin da ebaluatu, informazio faltagatik edo aktiboen izaeragatik. Hala ere, behar adina datu ditugun inbertsioetan zentratzen garenez, Garapen Jasangarriko Helburuei ekarpen positiboa egiten zaiela ikusten dugu, batez ere eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen bidez. Erakunde batzuek oraindik ere hobetzeko marjina dute, bai eragiketei dagokienez, bai inpaktu iraunkorrari dagokionez, baina argi eta garbi jasangarriak ez diren jardueren eragina oso txikia dela nabarmendu behar da.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**



Ondorengo grafikoan ekarpen positiboa (urdina) eta negatiboa (laranja) guztizkoa erakusten da GJHetako helburu bakoitzarentzat:



Grafiko honetatik honako hauek nabarmendu ditzakegu:

**Ingurumenaren gaineko eragina:** Zorroak ingurumen-GJHekin lerrotatze sendoa du, batez ere klimaren (GJH 13), energia eskuragarriaren eta ez-kutsatzailearen (GJH 7) eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuen (GJH 12) eraginez, eta trantsizio energetikoaren eta jasangarritasunaren aldeko babes argia islatzen du. Ingurumen-deslerrotatze mailak txikiak diren arren, emisioei eta baliabide-kontsumoari lotutako inpaktu negatibo puntualak identifikatzen dira.


**Gizartean eragina:** Ikuspegi sozial batetik, diru-zorroak ekarpen positiboa egiten du genero-berdintasunean (5. GJH) eta osasunean eta ongizatean (3. GJH), eta konpromiso sendoa islatzen du inklusioarekin, aniztasunarekin eta oinarriko zerbitzuak eskuratzeko aukerarekin. Lan duinean eta hazkunde ekonomikoan (8. GJH) eta pobrezia-amaieran (1. GJH) ere ekarpen garrantzitsuak daude. Hala ere, azken bi horietan antzematen dira deslerrotatze-arrisku handienak, eta horrek agerian uzten du beharrezkoa dela gizarte-azterketa indartzea eta enpleguan eta bizi-baldintzetan izan daitezkeen eragin negatiboak arintzea.

## 5. Kudeatzailearen zorroa

“KUDEATZAILEA” zorroak Erakundearen Erreserbak barne hartzen ditu. Batez ere Diru Baloreetan eta Epe Laburreko Errenta Finkoetan inbertituta daude.

| GEROA PENTSIOAK LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE<br>GOBERNU ORGANOAK:<br>ADEGI %50, ELA,LAB,CC.OO eta UGT: %50 |     |                        |     |
|---|-----|------------------------|-----|
| <b>AKTIBOA</b>  |     |                        |     |
| LIKIDEZIA   | %12 |                        |     |
| ERRENTA FIJOA   | %47 |                        |     |
| FUNTSAK   | %28 |                        |     |
| KREDITUAK   | %12 |                        |     |
| HIGIEZINAK  | %1  |                        |     |
|   |     | <b>PASIBOA</b>         |     |
|   |     | DERRIGORREZKO ERRESER. | %12 |
|   |     | BOLONDRESKO ERRESER.   | %88 |
| <b>2024. URTEA: 57 MM</b>   |     |                        |     |

Inbertsio Sozialki Arduratsuaren inguruan egiten dugun jarduera honela egituratuta dago:



## 1. Aktiboen hautaketa

Aktiboen aukeraketaren bidez inbertsio unibertsoa sortzen dugu. Aktiboak, finantza irizpideen arabera hautatzeaz gain, ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta gobernantza korporatiboari lotutako irizpideak (ISG) kontutan izaten ditugu.

Inbertsioaren helburua, errentagarritasuna lortzeaz gain, balioa sortzea da, beti ere, Erakundearen ISA Politika eta Inbertsioen Printzipioen Adierazpenak jarraituz.

Gure inbertsioetarako ISG kalifikazioen bidez enpresak hautatzeko orduan “Best in class” metodoa erabiltzen dugu. Horrez gain, salbuespen-iragazki desberdinak ezarri ditugu aktibo mota bakoitzerako, taulan azaltzen den moduan.

| 1.1 AKTIBO MOTA BAKOITZEKO IRAGAZKIAK                             |  |
|---|--|
| Zor publikoa eta erakunde publikoena                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  |
| Zor korporatiboa / Akzioak enpresa kotizatuetan                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> <li>• Jardueragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera nagusia ikatz termikoa</li> <li>- Arma polemikoak</li> </ul> </li> <li>• Portaeragatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Munduko itunaren 10 printzipioak</li> <li>- Eztabaida larriak</li> </ul> </li> </ul> |
| Funts likidoak / ETF  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISG kalifikazioagatiko baztertzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- ISG Arrisku Globalaren puntuazioa &lt;=33</li> </ul> </li> </ul>  |
| Aktibo alternatiboak (higiezinak, azpiegiturak, arrisku-kapitala) | <ul style="list-style-type: none"> <li>-</li> </ul>  |
| Likidezia   | - ISA Politikak dituzten Erakundeak  |
| Zorro osoa  | -  |

## 2. Zorroaren kudeaketa eta, jarraipena (Hiru hilean behin)

Hiruhilero, zorroaren kontrol-analisia egiten dugu, ezarritako politikak betetzen direla egiaztatzeko eta haietatik desbideratze posiblek eman den hautemateko asmoz.

Ingurumen arriskuek, arrisku sozialek eta gobernu korporatibo onari lotutako arriskuek (ISG) gure inbertsioetan nola eragiten duten neurtzen dugu (Jasangarritasun-arriskuak). Horrez gain, gure inbertsioek ingurumenean eta gizartean nola eragiten duten ere neurtzen dugu: positiboki GJHak, bai negatiboki Kontrako Gorabehera Nagusiak (KGN) aztertuz.



**Jasangarritasun-arriskuak**<sup>5</sup> gutxitzeko helburuarekin, honako arazoak dituzten konpainien azterketa egiten dugu:

- Ingurumen-, gizarte- edo gobernu-alorretako eztabaida larriren batean sartuta daudenak.
- Nazio Batuen Mundu Itunaren 10 printzipioetakoren bat urratu eta inolako neurri zuzentzailerik hartu ez dituztenak.
- Berain ISG arriskuaren kalifikazioa totala 33tik beherako puntuaziora jaitsi zaizkienak.

<sup>5</sup> **Jasangarritasun-arriskuak:** gertatuz gero, inbertsioaren balioan eragin material negatibo erreala edo posiblea izan dezakeen ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-arloko edozein gertaera edo egoera.

Azpirarratu beharrekoa da, ekitaldian zehar ez dela horrelako gorabeherarik gertatu, eta, beraz, ez dela inolako ekintza zuzentzailearik behar izan.

ISA politikan adierazten den bezala, eztabaida larria duten konpainiek, gehienez, zorro osoaren eskudiruaren %4ra hel daiteke. 2024aren amaieran, ehunekoak, %1 baino txikiagoa da.

Era berean, ingurumenean edo gizartean egiten ditugun inbertsioek eragiten dituzten **Kontrako Gorabehera Nagusi (KGN)**<sup>6</sup> hauek identifikatu eta arintzen saiatzen gara.

Lehenik eta behin, Zor Publikoan egindako inbertsioak sortutako ondorioak aztertuko ditugu:

|                    | GERTAERA KALTEGARRI NAGUSIEN ADIERAZLEAK                   | UNITATEAK  | 2023<br>12/31 | 2024<br>03/31 | 2024<br>06/30 | 2024<br>09/30 | 2024<br>12/31 | HARTUTAKO NEURRIAK                                  |
|--------------------|--|--|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---|
| <b>INGURUGIROA</b> | Inbertitzen den herrialdeen BEG intentsitatea              | CO <sub>2</sub> e tona /BPG Milioi Euroko  | 203,77        | 257,62        | 100,53        | 104,25        | 203,77        | Karbono intentsitatea neurtzea.                     |
| <b>SOZIALA</b>     | Gizarte-gaien urraketan menpe dauden inbertsio-herrialdeak | Gizarte-urraketa jasan duten herrialdeen kopurua (Nazioarteko itun eta hitzarmenetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, legedi nazionaletan aipatzen den moduan.) | 0             | 0             | 0             | 0             | 0             | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea. |

<sup>6</sup> **Kontrako Gorabehera Nagusi (KGN)**: ingurumen-, gizarte- eta lan-gaiei, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko iraunkortasun-faktoreei buruzko erabakietan izaten diren eragin negatibo garrantzitsuenak dira.

Bigarrenik, Erakunde Korporatiboetako inbertsioek eragintakoak aztertuko ditugu (bonuak eta akzioak):

|             | GERTAERA KALTEGARRI NAGUSIEN ADIERAZLEAK  | UNITATEAK  | 2023 12/31 | 2024 03/31 | 2024 06/30 | 2024 09/30 | 2024 12/31 | HARTUTAKO NEURRIAK  |
|-------------|---|--|------------|------------|------------|------------|------------|---|
| INGURUGIROA | BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3. esparruko emisioak)   | CO <sub>2</sub> e tona   | 3.414,91   | 2.900,03   | 4.952,35   | 6.427,13   | 2.617,55   | Karbono intentsitatea neurtzea.   |
|             | Karbono Aztarna   | CO <sub>2</sub> e tona/ Inbertitutako Milioi Euroko  | 294,73     | 291,04     | 168,23     | 208,17     | 179,69     | Jarduera nagusi gisa (diru-sarreraren %50 baino gehiago) ikatzaren erauzketa edo ikatz-energiaren sorkuntza duten eta karbono gutxiko ekonomia baterako energia-trantsizioko estrategiarik ez duten enpresak baztertzea.  |
|             | BEGen intentsitatea   | CO <sub>2</sub> e tona/ Irabazitako Milioi Euroko  | 362,17     | 493,05     | 280,90     | 973,98     | 7.859,49   |   |
| SOZIALA     | Genero aniztasuna kontseiluetan   | Enpresa partaidetuetan emakumezko/gizonezko kontseilarien batez besteko ratioa                               | %24,71     | %37,82     | %25,49     | %24,73     | %41,33     | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Emakumeen ahaluntzearen zazpi printzipioen konpromisoa.<br>2023an zehar, ez da beharrezkoa izan inongo enpresarekin harremanetan jartzea bere Administrazio Kontseiluan emakumeen parte-hartzea gutxienez %30era igotzeko eskatzeko. |
|             | Arma polemikoekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, kluster munitzioak, arma kimikoak eta arma biologikoak) | Arma polemikoak fabrikatzen edo saltzen parte hartzen duten partaidetutako enpresen inbertsioen ehunekoa (%) | %0         | %0         | %0         | %0         | %0         | Adierazlearen monitorizazioa eta jarraipena egitea.<br>Arma polemikoen produkzioan eta salmentan diharduten enpresak baztertzea.  |

Azkenik, Funts eta Arrisku Kapitaleko Sozietateetan egiten ditugun inbertsioei dagokienez, hauek Kudeatzen dituzten Erakundeek jarraitzen dituzten ISA Politiken jarraipena egiten dugu. Kudeatzaileen %100ek ISA Politikak jarraitzen dituztela ondoriozta dezakegu.

Horrela, 2024/12/31n:

| FUNTS LIKIDOAK                              |       | %              |         |                                    |
|---|-------|----------------|---------|------------------------------------|
| ISA Politikak dituzte inbertsio Prozesuetan |       | %100,00        |         |                                    |
| PRI sinatzaileak                            |       | %100,00        |         |                                    |
| Kudeaketa-Erakundeari ezarritako Puntuazioa |       |                |         |                                    |
| 0   | <50   | ATZERATUAK     | %0,00   | Urteroko jarraipena beharrezkoa da |
| >=50  | <70   | JARRAITZAILEAK | %0,00   |                                    |
| >=70  | >=100 | AINTZINDARIAK  | %100,00 |                                    |
| Total                                       |       | %100,00        |         |                                    |

GEROAK inbertsio funts ezberdinetan inbertitzen du. Funts horiek jasangarritasunarekin duten konpromisoa, Finantza Dibulgazio Iraunkorreko Araudiaren (SFDR) arabera aztertzen badugu, inbertsioaren %100a ingurumen edo gizarte ezaugarriak sustatzen dituzten funtsen bidez egin dela (8. artikulua) ondoriozta daiteke.

Ondoren, ezarritako helburuen hiruhilekoko bilakaera jarraian azaltzen da:

| ADIERAZLE NAGUSIAK   |   |  |
|--|---|--|
| <b>2.1 Zorroaren Ratinga</b><br>(Hiru Hilekoa: OT :2023/12/31 1T: 2024/03/31 2T: 2024/06/30 3T: 2024/09/30 4T: 2024/12/31) |   | <br>ISG Arrisku Ratinga 2024/12/31  |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=50   |   |  |
| Zor publikoa eta Erakunde Publikoenena   | <br>OT 1T 2T 3T 4T<br>Estaldura-maila 2024/12/31: %100   |   |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60   |   |  |
| Zor korporatiboa eta Akzioak enpresa kotizatuetan  | <br>OT 1T 2T 3T 4T<br>Estaldura-maila 2024/12/31: %83,34   |   |
| Funts likidoak/ETF   | Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60<br><br>OT 1T 2T 3T 4T<br>Estaldura-maila 2024/12/31: %84,30 | Kudeaketa-erakundeak. Helburua:<br>Inbertitutakoaren >=%75 ISA politikak dituzten kudeatzaileen bitartez<br><br>OT 1T 2T 3T 4T |
| Aktibo alternatiboak (Higiezinak, Azpiegiturak, arrisku-kapitala...)   | Inbertitutakoaren >=%75 PRIak sinatu dituzten kudeatzaileen bitartez<br><br>OT 1T 2T 3T 4T                  |   |
| 100 ISA Politikak dituzten Erakundeetan<br>Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60                                |   |  |
| Likidezia  | <br>OT 1T 2T 3T 4T<br>Estaldura-maila 2024/12/31: %92,84   |   |
| Helburua: ISG Arrisku Globalaren puntuazioa >=60   |   |  |
| ZORRO OSOA   | <br>OT 1T 2T 3T 4T<br>Estaldura-maila 2024/12/31: %89,34   |   |

ADIERAZLE NAGUSIAK

2.2 Zorroaren inpaktuaren monitorizazioa eta neurketa (2024/12/31)

(Honako hauek ez dira barnean hartzen: Start-upak eta kotizatu gabeko enpresak, arrisku-kapitaleko sozietateak - AKS/arrisku-kapitaleko funtsak - AKF (likidezi gabeak), titulizazioak, deribatutak)

Karbono aztarna eta Parisko Akordioarekin lerrokatzea

Parisko Hitzarmena klima-aldaketaren aurkako borrokarako akordio historikoa da, emisio gutxiko, klimarekiko erresilientea eta garapen iraunkorra sustatzeko funtsezkoa dena.

Iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren esparruan, GEROAk gure inbertsioekin lotutako Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketen aldizkako ebaluazioa egiten du. Igorpen hauek honako hauek dira:

• Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurketak

1. IRISMENA

Isurpen zuzenak

Iturri propioek edo kontrolautotoek ekoiztuak

- Enpresa instalazioetako isurpen zuzenak
- Ibilgailuen flota

2. IRISMENA

Zeharkako isurpenak

Entitateak eskuratu eta kontsumitutako elektrizitatearen sorkuntzatik sortutako isuriak

- Elektrizitatea

3. IRISMENA

Zeharkako isurpenak

Erakundearen jardueren ondorio dira, baina bere jabetzakoak edo kontrolatuak ez diren iturrietan gertatzen dira

- Lehengailen erabilera
- Untzi garraioa
- Lur garraioa
- Hondakinen kudeaketa
- Negozio bidaiak
- In itinere bidaiak
- Ur kontsumoa
- Kapital aktiboa eta inbertsioak

| ADIERAZLEA                           | METRIKA   | 2023/12/31 | 2024/03/31 | 2024/06/30 | 2024/09/30 | 2024/12/31 |
|--------------------------------------|---|------------|------------|------------|------------|------------|
| BEG emisioak guztira (1., 2. eta 3.) | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 3.416,08   | 3.537,19   | 5.784,10   | 6.427,70   | 6.833,43   |
| 1. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 49,55      | 332,80     | 319,67     | 221,87     | 2.823,88   |
| 2. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 16,20      | 32,63      | 241,47     | 209,37     | 609,48     |
| 3. esparruko emisioak                | CO <sub>2</sub> e Tona                          | 3.995,72   | 3.183,01   | 5.222,65   | 6.953,70   | 6.140,24   |
| Karbono Aztarna                      | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Inbertitutako Milioi | 207,68     | 234,11     | 179,43     | 199,20     | 278,09     |
| BEGen intentsitatea                  | CO <sub>2</sub> e Tona/<br>Irabazitako Milioi   | 255,65     | 387,90     | 293,39     | 932,05     | 2.847,16   |
| Herrialdeen BEGen intentsitatea      | CO <sub>2</sub> e Tona / BPG<br>Milioi Euorko   | 203,77     | 371,14     | 93,83      | 100,99     | 58,82      |

2024an, zorroko BEGen guztizko emisioak 3.416,08 tonatik 6.833,43 tonara igo ziren. Hazkunde hori posizio berriak sartzeari eta ekitaldiaren testuinguru orokorrari erantzuten diote. Hain zuzen ere, emisioen datuen eskuragarritasuna, batez ere 3. esparruko emisioei dagokienez, nabarmen hazi dela ikusi dugu enpresen txostenetan, araudi berriek, aurrerapen teknologikoek eta gardentasun-eskari gero eta handiagoak bultzatuta.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Ondorioz, isuri absolutuak hazi ziren arren, adierazle erlatiboek konplexutasun hori islatzen dute. Karbono-aztarna inbertitutako milioi euro bakoitzeko 278,09 tona CO<sub>2</sub>e-n itxi zen, eta BEGen intentsitatea diru-sarreraren milioi euro bakoitzeko 2.847,16 tona CO<sub>2</sub>e-ra iritsi zen zorroan izandako aldaketa errealak eta jakinarazitako datuen estaldura eta kalitatearen hobekuntzak islatzen dituzten igoerak. Horrek emaitzak interpretatzearen garrantzia indartzen du zorroaren bilakaera ez ezik, klima-informazioaren erabilgarritasunaren eta zehaztasunaren testuingurua ere kontuan hartuz.

**1. eta 2. esparruko emisioei arreta jarritz, Planaren temperatura kalkulatzeko dugu.**

Horretarako, enpresen emisio murrizketak temperatura-eszenatoki desberdinetarako berotze globala mugatzeko beharrezkoa den deskarbonizazio-mailarekin alderatzen dira. Horrela, gure zorroaren temperatura 1,8°C-koa dela ikusten dugu.

Gogoratu beharra dago Parisko Akordioak industria aurreko mailen aldean temperatura globalaren batez besteko igoera 2 gradura mugatu nahi duela, mende honen amaieran 1,5 graduko marka ez gainditzeko ahaleginak bikoiztu eta 2050ean klima neutraltasuna lortzeko.

Karbono-aztarna egungo emisioak neurtzeko adierazle garrantzitsuenetako bat bada ere, inbertitzen ditugun enpresen azterketa zehatzagoa egiteak gai honi buruzko ikuspegi prospektiboa izateko aukera ematen du. Horrela, enpresen konpromiso-maila aztertzen dugu alderdi hauetan:



**Karbono-emisioen puntuazioa**

Karteraren kalitatea eta ingurumen-errendimendua ebaluatzen dituen adierazle bat da (0tik 100era bitarteko eskala, non 100 den balorazio onena).

CO<sub>2</sub> isurien puntuazioek enpresaren errendimendua neurtzen dute, enpresa bakoitzaren 1. eta 2. esparruko emisio beren kideekin alderatuz. Puntuazio hauek zorroaren mailan batzen dira puntuazio bakarra lortuz.



**Enpresek isuriak murrizteko konpromisoa**

|   |                        |        |
|---|------------------------|--------|
| Emisioak murrizteko politikak dituzten erakundeak |                        | %44,05 |
| Emisioak murrizteko helburuak dituzten erakundeak |                        | %38,81 |
| Emisio helburuak dituzten erakundeak              | Plana garatuta         | %39,01 |
|   | Plan garatze prozesuan | %2,98  |

**ADIERAZLE NAGUSIAK**


**Zero emisio garbiaren ekimena.**

Ekimena BEG emisioak murriztean datza, 2050. urterako zero emisioetatik ahalik eta gertuen egon arte.

Inbertsioak honekin bateratzen diren konpromezuen Heldutasun Mailaren bidez kontrolatzen dugu, honako neurri desberdinak kontuan hartuta, hala nola:

- Epe luzerako anbizioa
- Epe laburreko helburuak
- Tenperatura lerrokatzea
- Emisioen errendimendua helburuekiko
- Emisio materialen berri ematea
- Deskarbonizazio estrategia

Horrela, Net Zero grafikoan Plana osatzen duten enpresek Zero Emisio Garbiaren Helburuarekin duten lerrokatze estrategia agertzen da: Kontuan izan behar da erakundeen %17,96k bat egiten dutela helburuarekin, %20,31 lerrokatzen ari dela eta %50,66ak konpromisoa hartu duela.



**ADIERAZLE NAGUSIAK**

**Gure inbertsioak Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatzea**

GEROAn, gure inbertsio guztiek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen nola laguntzen duten kontrolatzen dugu, gure finantza-erabakiak garapen jasangarri eta bidezkoarekin bat egiten dutela ziurtatuz.

Enpresek eragina bi modutan eragin dezaketela uste da:

- *Produktuak eta zerbitzuak:* inbertitzen ditugun enpresek produktu eta zerbitzuen bidez zenbaterainoko eragin positiboa duten ebaluatzen dugu.
- *Operatiba:* Enpresa horien barne kudeaketa aztertzen dugu, haien jardunbide operatiboak iraunkorrak eta arduratsuak direla ziurtatzeko.

Horrez gain, enpresek Kalte Esanguratsurik ez eragiteko (DNSH) irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen da, hau da, lerrokatu gisa sailkatutako inbertsioek ez duela eragin negatiborik izango GJH-en aurrerapenean bermatzen.

Irizpide hauen arabera, inbertsio bakoitza kategoria hauetako batean sailkatzen da:

- *Lerrokatuta:* positiboki laguntzen die GJHei.
- *Neutroa:* ez du eragin esanguratsurik, ez positiboa ez negatiboa.
- *Lerrokatu gabeak:* garapen iraunkorrean eragin negatiboa izateko arriskua izan dezake.


Ondoko grafikoan enpresek sailkatzeko prozesua erakusten da, GJHekin bat datozenen arabera:



**ADIERAZLE NAGUSIAK**

Gure inbertsioek GJHetan duten eragina ebaluatzeko, funtsezko hiru dimentsio hartzen dira kontuan:

- *Operatibaren lerrokatzea*: inbertitzen ditugun enpresek beren eragiketetan jasangarritasun-arauak nola betetzen dituzten ebaluatzen dugu.
- *Produktu eta zerbitzuen ebaluazioa*: aztertzen dugu enpresek beren produktu eta zerbitzuen bidez positiboki laguntzen dioten GJHei.
- *Diru-sarreraren lerrokatzea*: enpresen diru-sarrerak jarduera jasangarrietatik zenbateraino datozen aztertzen dugu.




Gure inbertsioen %43 inguru ezin dira behar bezala ebaluatu informazio faltagatik edo aktiboen izaerak irizpideak aplikagarri ez direlako. Ebaluatutako inbertsioen artean, neutrotzat jotako %34az gain, %19ko ekarpen positiboa identifikatu dugu GJHei, eragiketen eta eskaintako produktu eta zerbitzuen lerrokatzeak bultzatuta. Jardunbide egokiak edo produktu jasagarriak dituzten entitateak badira ere, diru-sarreraren arabera neurtutako benetako ekarpena txikia izaten jarraitzen du. Azkenik, komentatu beharrekoa da, jarduera jasanezinekiko esposizioa oso baxua dela, %2 eta %4 arteko mailarekin, eta horrek arrisku mugatua adierazten duela.

**ADIERAZLE NAGUSIAK**



Ondorengo grafikoan ekarpen positiboa (urdina) eta negatiboa (laranja) guztizkoa erakusten da GJHetako helburu bakoitzarentzat:



Grafiko honetatik honako hauek nabarmendu ditzakegu:

**Ingurumenaren gaineko eragina:** zorroak ingurumen-ekarpen nabarmena aurkezten du, batez ere klima-ekintzan (13. SDG), klima-aldaketa arintzeko konpromiso argia islatuz. Energia eskuragarri eta ez-kutsagarrian (7. SDG) eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuan (12. SDG) ere aurrerapenak ikusten dira, nahiz eta ingurumen-inpaktu negatiboa duten jarduerekin lotutako deslerrokadurak dirauten.

**Gizartean eragina:** Gizartean duen eragina: zorroak genero-berdintasunaren (5. GJH), desberdintasunen murrizketaren (10. GJH) eta pobrezia-amaieraren (1. GJH) ikuspegi sendoa erakusten du, lan duinean eta hazkunde ekonomikoan (8. GJH) eta osasunean eta ongizatean (3. GJH) ekarpen garrantzitsuekin batera. Hala ere, pobrezia-ekin amaitzeko arrisku garrantzitsuak (1. GJH) eta lan duina (8. GJH) ere identifikatzen dira, baita osasunean eta ongizatean (3. GJH), genero-berdintasunean (5. GJH) eta hiri eta komunitate jasangarrietan (11. GJH) inpaktu negatibo txikiagoak ere. Emaiza hauek erakusten dute gizarte-analisia hobetzen eta desberdintasunak murrizten eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten inbertsioak indartzen

## 6. Inplikazio politikak

### Entitatearen Inplikazio-Politikak hiru zorrotako aktiboei eragiten die.

Gure ustez, inplikazioa elementu garrantzitsua da gure inbertsio-jardueraren barruan. Izan ere, elkarreragiteko eta inbertitzen dugun konpainien jardunbideekiko adostasuna edo desadostasuna agertzeko aukera ematen digu, gure bazkideen interes orokorrak ordezkatzeko eta enpresen epe luzerako jasangarritasunaren alde egiteko. Horretarako, hainbat bide ditugu:

- 1- Bozka-eskubidea baliatzea.
- 2- Elkarrizketa aktiboa.
- 3- Lankidetzak-ekimenak: Beste akziodun batzuekiko lankidetzak

### 1- Akziodun aktiboak gara

Botoa emateko eskubideak baliatzen ditugu inbertitzen dugun konpainia nazionaletan (%0,05etik gorako partaidetzarekin), eta, era horretan, gure bazkideen interesak ordezkatzeko ditugu. Gainera, konpainien epe luzerako jasangarritasunaren alde egiten dugu beti, eta ingurumen-irizpideei, irizpide soziolaboralei eta gobernantza-irizpideei jarraitzen diegu. Edonola ere, konpainia nazional edo atzerriar guztietan emango dugu botoa, betiere gure ustez gure parte-hartzea behar duten jokabideak edo ekintzak ikusten badira.

Urteak daramatzagu akziodunen batzarretan eta bonudunen batzarretan, gure betebeharrak fiduziarioaren parte gisa. Nolanahi ere, Akziodunen Eskubideei buruzko II. Zuzentaraua (SRD II)<sup>7</sup> indarrean jarri zenean, gure sistemak egokitu genituen, Zuzentzarau hori behar bezala betetzeko. Gainera, Broadridge (ProxyEdge) zerbitzuaz baliatzen gara, nazioarteko batzar nagusietan eta bonudunen batzarretan parte hartzeko.

#### Akziodunen Batzar Orokorrak, Bonudunen Batzarrak eta/edo Akziodunen Ezohiko Batzarrak.

Akziodunen 33 Batzar Orokorretan, Akziodunen Ezohiko Batzar batean eta Bonudunen Batzar batean eman da botoa.

| BOZKATU BEHARREKO PUNTUEN KOPURUA | ALDE   | AURKA | ABSTENTZIOA |
|-----------------------------------|--------|-------|-------------|
| 460                               | 408    | 24    | 28          |
| %100                              | %88,70 | %5,22 | %6,09       |

Gure boto zentzuari dagokionez, abstenitu edo aurka bozkatu ditugun gaiak errepikatzen dira.

<sup>7</sup> Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/828 EB Zuzentaraua, 2017ko maiatzaren 17koa; horren bidez, akziodunak epe luzera sozietate kotizatueta inplikatzeko aukera sustatzen da.

Besteak beste, kontrako bozka eman da ondorengoetan:

- **Administrazio Kontseiluaren osaera:**

- Kontseilari independenteak %30 baino gutxiago direnean, Jabedun kontsailariak ber-hautatzea edo izendatzea.
- Esperientzia egokia frogatzeko gazteegiak edo 75 urtetik gorakoak diren kontseilariak berriro hautatzea edo izendatzea.
- Kontseilari kopurua gomendatzen denaren gaintik handitzea.

- **Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea:**

- Kapitala handitzeko, akzioak berrerosketo edo beste sozietate-ekitaldietarako eskuordetzaren balio-epea arrazoizkoa baino luzeagoa denean.
- Auditore bera berriro aukeratzea komeni dena baino denbora luzeagoan karguan egon denean.

Bestalde, abstenitu egin gara kontseilarien ordainsari-politikari buruzko galdera gehienek bozketan, kontrako botoa eman dugun salbuespen kasuetan izan ezik.

Horrez gain, honako auetan ere abstenitu egin gara:

- Administrazio Kontseiluaren kudeaketa onartzean, gorabehera larriren bat gertatu dela antzeman dugunean.

### **AKS/AKF likidatu gabeen Urteko Batzar Orokorrak**

2024. urtean, 23 batzarretan parte hartu dugu, eta botoa kudeatzaileei eskuordetu diegu edota aldeko puntu guztietan eman dugu botoa.

### **Start-Upen Administrazio Kontseiluetan izandako parte-hartzea**

9 start-upen 40 kontseilutan parte hartu da.

### **Kotizatutako Sozietateen Administrazio Kontseiluetan parte hartzea**

Administrazio kontseiluen %100ean parte hartu da.

## 2- Elkarrizketa aktiboa

GEROAK elkarrizketa aktiboa ezartzen du Inbertsio Batzordeak egokitzat jotzen dituen enpresa edo erakunde guztiekin, bai eta ISA Politikak hala eskatzen duen enpresa edo erakunde guztiekin ere.

Memoria honetan aipatu dugun bezala, konpainiekin harremanetan jarri gara honako alderdi hauek direla eta:

| Arrazoia  | Kopurua | Helburua   |
|---|---------|--|
| Eztabaida larrien mailarekin kalifikatzen diren konpainiak  | 3       |  |
| Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioren bat urratu duten konpainiak   | 1       | Arazoa konpontzeko ezarri dituzten estrategia eta neurri zuzentzaileak ezagutzea       |
| ISG arrisku globalaren kalifikazioan desbideatzeak dituzten konpainiak  | -       |  |
| Kontrako Gorabehera Nagusiak (KGN) aztertu ondoren hala eskatzen duten konpainiak: akziodun garen konpainietan, Administrazio Kontseiluaren osaeran gutxienez emakumeen %30 presentzia ez dutenak | 16      | Administrazio Kontseiluan emakumeen parte-hartzea gutxienez %30era handitzeko eskatzea |
| “Atzeratuak” bezala kalifikatutako erakunde kudeatzaileekin   | 15      | Ekitaldian zehar Inbertsio Sozialki arduratsuekin izan duen bilakaera ezagutzea        |
| Inbertsio zuzena Start Up eta Kotizatu gabeko Entitateetan  | 13      | Azken hiru urteetan ISAr dagokionez izan duten bilakaera ezagutzea                     |
| Beste batzuk  | 2       | ISG eremuan dituzten estrategiekin zerikusia duten gaiak ezagutzea edo sustatzea       |

## 3- Beste inbertitzaile batzuekin lankidetzaren ekimenetan izandako parte-hartzea

GEROAK, egokia denean, elkarrizketa aktiboa gauzatzen du beste inbertitzaile instituzional batzuekin lankidetzan, batez ere Inbertsio Arduradunentzako Nazio Batuen Printzipioak (PRI) bezalako nazioarteko lankidetzaren plataformen bidez. Lankidetzaren plataforma hauek merkatuko jardunbide hobeak sustatzeko edo kausa jakin batzuetan eragiteko aukera ematen digute.


Ekitaldian zehar ondorengo ekimenetan parte hartu dugu:

### - Spring ekimena:

2024an, GEROAK Spring Ekimenarekin bat egin du biodibertsitatearen galerari buelta emateko helburuarekin.

Spring, PRIk natura kudeatzeko sustatutako ekimena da, eta inbertitzaile instituzionalei dei egiten die 2030. urterako biodibertsitate globalaren galera geldiarazi eta berreskuratzeko euren eragina erabil dezaten.

Ekimen honen parte izanik, politika zorrotz eta eraginkorrak sortzea sustatzen da. Horrez gain, eragin handiena duten enpresak inplikatu nahi dira egungo dinamika negatiboari buelta emateko diseinatutako politika publikoen ezarpenean.



**- Advance ekimena:**

Giza eskubideen eta gizarte gaien kudeaketarako ekimena da. GEROA 2022an batu zen ekimenarekin parte-hartzaile gisa, ekimenari eusten dion inbertitzaile kolaboratzailearen rolaekin.

Advance, PRIk gidatzen duen kudeaketa-ekimena da. Inbertitzaile instituzionalak elkarrekin ari dira lanean, giza eskubideen eta gizarte-gaien arloan neurriak hartzeko. Inbertitzaileek enprekin eta erabakiak hartzeko beste arduradun batzuekin duten eragin kolektiboa erabiltzen dute langileentzat, komunitateentzat eta gizartearentzat emaitza positiboak bultzatzeko. Iniziatibak aldaketa bilatuko du batez ere, inbertitzaileek euren zorroko enprekin duten eragina erabiliz. Hiru helburu hauek finkatuko dira konpromisoaren ardatz diren enpresentzat:

- Nazio Batuen Printzipio Gidariak erabat aplikatzea, giza eskubideen arloan enpresa-jokabideari eusteko oztopoa baitira.
- Bere konpromiso politikoa giza eskubideak errespetatzeko duen erantzukizunarekin lerrokatzea.
- Bere eragiketetan eta bere balio-kateetan zehar giza eskubideei buruzko gai larrienen aurrerapenak sakontzea.

**- Berdintasunaren Woman Forward enpresa-indizea.**

Indizeak aukera ematen du denbora gutxian eta modu automatizatuan jakiteko ea enpresa bat datorren genero-aniztasuneko politikekin.

Hainbat esparru ebaluatzen dira: langileen bilaketa, hautaketa eta erreklutamendua; promozioa; soldaten ordainketa; erantzunkidetasuna; eta sexu-jazarpenaren neurriak, baita erabaki goreneko postuetan dagoen genero-aniztasunaren ehuneko ere.

Lortutako emaitzen helburua da adieraztea zer arlo aldatu behar diren eta zer egin daitekeen erakundeetan berdintasunaren kudeaketa hobetzeko.



**GEROA**

